


EUSKAL AEKO INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2011ko MAIATZA

Euskal AEko industri jarduera %4,1 hazi zen 2011ko maiatzean

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2011ko apirilarekin alderatuta %0,2 igo zen

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa %4,1 hazi da 2011ko maiatzean 2010eko hil beraren aldean. Urtaoen eragina zuzenduta, %0,2 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2011ko apirilarekin alderatuta.

1. grafikoa. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industri produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2011ko maiatzeko indizearen bilakaerak alde nabarmenak erakusten ditu, 2010ekoaren aldean. Energia %1,8 jaitsi da, Bitarteko ondasunak %4,0 hazi, Ekipo-ondasunak %9,1 hazi eta Kontsumo-ondasunak %0,7 jaitsi. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %1,4 jaitsi dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrak %1,6 hazi.

2011ko maiatzeko hil arteko aldakuntzan, 2011ko apirilaren aldean, alde nabarmenak dira industria talde handien artean. Ekipo-ondasunak %1,0 igo dira, Bitarteko ondasunak %0,4. Kontsumoko ondasunak, guztira, %1,0 igo dira; Kontsumo iraunkorreko ondasunak %4,3 hazi dira eta ez-iraunkorrekoak %0,1. Energia, berriz, %1,3 jaitsi da.

2011ko maiatzean hazkunderik handienak izandako sektoreak, aurreko urteko hil beraren aldean, Garraio materiala (%15,9) eta Makineria eta ekipoa (%16,9) izan dira.

1. taula. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	3,2
09 - Kautxua eta plastikoak	2,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	6,0
13 - Makineria eta tresneria	16,9
14 - Garraio-materiala	15,9
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-2,3
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-2,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-5,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea

Berriz, Material eta ekipo elektrikoa urte arteko %5,5 jaitsi da eta Elikadura-industriak, edariak eta tabakoa %2,8.

Maiatzeko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%8,5) eta Gipuzkoan (%6,5); Bizkaian %0,7 jaitsi da. 2011ko apirilaren aldean: Araban %3,6; Bizkaian %-1,3; Gipuzkoan %-0,2.

2. taula. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2011 maiatza (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2011mai/2010mai	M(2011mai) / M(2010mai) *	2011mai/2011api	2011api/2011mar
Indize orokorra				
Euskal AE	4,1	4,0	0,2	-0,5
Araba / Álava	8,5	7,7	3,6	-1,9
Bizkaia	-0,7	1,8	-1,3	-0,5
Gipuzkoa	6,5	4,4	-0,2	0,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-0,7	-1,8	1,0	-4,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	1,6	-8,8	4,3	0,8
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,4	0,4	0,1	-6,1
Ekipo-ondasunak	9,1	3,7	1,0	1,0
Bitarteko ondasunak	4,0	6,9	0,4	-2,0
Energia	-1,8	0,8	-1,3	0,8

(*) t urteko urtariletik 2011ko oraingo hilera arte metatutako aldiko urte arteko tasa, 2010eko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua